

Haitiren zorrak “Bébé-Doc” en altxorrean daude

Abuztuaren 22an Suitzako Gobernuak urtebeterako luzatu du Jean-Claude Duvalier “Bébé-Doc” Haitiko diktadorearen kontuen blokeoa, bere herritarrei ostuak direlakoan. Adituen ustez Duvaliertarrek munduko bankuetan daukate gorderik Haitiren kanpo zor osoa adinako dirutza.

“FONDATION BROUILLY” BATENAK ei dira Union des Banques Suisses-en (UBS) dauden 7,6 milioi franko suitzarrak (4,6 milioi euro). Baina denek dakite 1971tik 1986ra Haitiko diktadore izandako Jean-Claude Duvalier-enak direla. Diruok Duvaliertarrek berreskuratu behar zituzten ekainaren 3an, baina Bernako agintariek kontu horren blokeatzea luzatu dute.

Aginte federalak erabakia Suitzako Konstituzioaren 184-3 artikuluan oinarritu du: atal honek gobernuari agintzen dio herrialdearen interesak zaintzea, bereziki nazioarteko bere izen ona arriskuan dagoenean. Blokeoa eskatzen duten errepresaliatu haitiarrei ez zaie Suitzaren izen ona axola, beren helburua baita Miami auzitegi batek haientzako 1988an Duvaliertarrei ezarri 1,75 milioi dolarreko kalte-ordainak eskuratzea. Haitiren kanpo zorrarekin kezkatuta dauden militanteek, berriz, begiratzeko diote Miami sententzia hartan haitiarrei aitortzen zitzaizkien 504 milioi dolarrek berreskuratzeko bidea garbitzeari.

Ataka gaitza gaingitu beharko dute diktadorearen familiak ebatsirikoak benetako jabe izultzea nahi dutenek. Suitzak sistema berezia dauka beste herrialdeetako epaileekin elkarlanean aritzeko, hori batetik. Eta bigarrenik, suitzarren banku-sekretu ospetsua dago. Bi giltzarrapo irekitzen zailak.

1986an eskatu zuen Haitik Duvaliertarren diruak blokeatzea Suitzan. Bi urte geroago onartu zuten agintari helvetiarrek. Eta epaileen arteko elkarlana abiatu zen. Baina diruok diktadore ohiaren familiari kentzeko Haitiko auzitegiak frogak erakutsi behar ditu –1996ko lege suitzar batek ezarritako baldintzengatik– eta hori oso nekez lortuko da.

Estatu baten egitura osoa kontrolatu duen agintariak bere lapurreten arrastoak lausotzeko denbora eta indarra eduki ditu. Baina gainera, diktadoreek egitura judiziala arras ahulduta utzi dute. François “Papa-Doc” eta Jean-Claude “Bébé-Doc” Duvalier aita-semeen artean, Haitin gobernatu zuten hasi 1957tik eta 1986raino.

Ez da harrigarri Port-au-Princeko epaileek nazioarteko gai baten kudeaketan taxu gutxi erakustea. Diktadura jasandako beste herrialdeekin ere antzekoa gertatu da, hala nola Kongo-ko Errepublika Demokratikoarekin. Informazio honetarako iturri erabili dugun *Afrikara* webgunean hala idatzi dute: “2008an bukatzen da Mobutu diktadore ohi zairetarren diruen blokaketa, eta Kongok ere ez du diruok berreskuratzeko elkarlan judizialaren eskaria bete oraindik”.

Oztopo horiek aski ez balira, hona hirugarren maratila: Suitzako legedian laguntza judizialik ez da onartzen zerga-ordainketen saihestea baldin

bada diruon jatorria. Iruzur fiskalak zigor penala eta administraziokoa jaso ditzake, baina saihesteak administraziokoa bakarrik. Nabardurak? Oztopo larregi, Duvalierren sosak noizbait Haitira itzuliko direla amesteko.

Osasun publikoak falta dituenak

Duvaliertarrek ebatsi eta atzerrian ezkutuan dauzkaten diruak 4,6 milioi euro horiek besterik ez izatekotan, interes pitina lukete gaurko haitiarrrentzako. Baina *L’or des dictatures* liburuan Philippe Madelin-ek dio Suitzan bertan ehun milioi dolarrez goiti dauzkatela gorderik.

Beste informazio iturri ona Comité Catholique contre la Faim et pour le Développement (Gosearen kontrako eta Garapenaren aldeko Batzorde Katolikoa, CCFD) da. Honek diktadoreek lapurtutako diruen kalkulua plazaratu du 2007ko martxoan, eta bertan “Bébé-Doc” en altxorraz bi zifra aipatzen ditu. Transparence International erakundearena bata: 300 eta 800 milioi dolar arteko kopurua ebatsi eta atzeriratu zutela. Nazio Batuen drogaren eta kriminalitatearen kontrako bulegoak aldi kopuruak 500 eta 2.000 milioi dolar artean finkatu ditu.

Nola ostu liteke hainbeste diru miseriak itotako Haiti batean? CCFD erakunde katolikoak deskribatu du Duvaliertarren sistema: “Haitiko





Haiti Nazioarteko Diru Funtsaren arabera munduko herriak txiroenetakoa da. Bere per capita errenta 1.835 dolarrekoa da –Espainiarena 28.000koa eta Frantziarena 31.000 dolarrekoa dira–. Haitiarrek hauteskundeetan aukeratutako presidente Jean-Bertrand Aristide Mendealdeko potentziek bortxaz kendu zutenetik are nahasiagoa da bertako egoera politikoa, eta ekonomikoa berdin.

Aristideren aurretik François Duvalier “Papa-Doc” izan zen bertako jaun eta jabe, 1957an hasi eta 1971n hil arte. Urte horretan bere seme Jean-Claude Duvalier “Bébé-Doc” (argazki txikian) bihurtu zen bizitarako presidente, 1986an herritarren matxinada batek exiliara bidali zuen arte. Munduko diktadore basati eta ustelen paradigma da Duvalier izena oraindik. Haitiren patua kanpo zorrari lotuta dago 1804an erdietsi zuenean frantsesengandiko independentzia, ondorengo mende luzean Frantziarekiko zorrak ito zuen. Orain osasungintza –argazki handikoa ospitalea da, gezurra dirudien arren– gastatzen duena halako bi baldintzen du atzerriara interes eta amortizazioak ordaintzeko.

banku zentralari agintzen zioten dirutza handiak sartzeko familiak zorrotz kontrolatutako eta itxuraz ongintzarako ziren erakundeetan. Horretaz gain, herrialde aberatsek Haitiko jendeentzako bidaltzen zituzten irin zaku guztiei zerga ordainarazten zieten. Gero, diru horiek denak atzerriko bankuetako kontuetara igortzen zituzten”.

1986an, haitiarren errebolta agintetik egotzitakoan, Jean-Claude Duvalier Frantzia babestu zen. Port-au-Princeko agintari berriek Frantziako justiziaren laguntza eskatu zuten 120 milioi dolar berreskuratzeko. 1988an Aix-en-Provenceko epaitegiak bere gain hartu zuen gaia iker-tzea, baina Duvaliertarrek apelazioa egin eta geldiaraztea lortu zuten.

Frantziako legediak debekatzen du atzerriko estatuburu bat auzitegi frantsesetan pertsegitzea Frantziatik kanpo egindako gaiztakeriengatik.

Geroztik Frantzia egoera aldatu da, zeren eta nazioartean ustelkeriaren eta diru-zuriketaren kontra erabaki diren hitzarmenak onartu baititu. Horien artean, ustelkeriaren kontrako Nazio Batuen 2003ko hitzarmena, nazioarteko legedian sartzen duena ostutako ondasunak beren biktimei itzularaztea.

Herrialde txiroen kanpo zorraz okupatzen diren erakundeak eta giza eskubideen aldekoak ari dira antolatzen Frantzia Duvaliertarrek dauzkaten ondasunen berreskuraztea. Afrikarak aipatu ditu ondasun horietako batzuk: Théméricourt herrian

jauregia, Pariseko Foch karrikan apartamendua, beste bat 240 metro karra-tukoa hiriburuan, beste bi Neuilly hirian, eta abar.

Suitzan, Frantzia, AEBetan, eta paradisu fiskaletan Duvalier familiak pilatutako ondasunak, aipatu erakundeon iritzian, ez dabilta urruti Haitik daukan kanpo zorraren kopuruetatik. 1986an, “Bébé-Doc”ek agintea galdu zuenean, Haitik 800 milioi dolar zor zituen eta gaur hori 1.400 milioitan dago. Duela bi urte Munduko Bankuari atzerapenak kitatzeko Haitik 52,6 milioi dolar pagatu behar izan dio. 1996tik 2003ra bitartean urtero atzerriko hartzekodunei ordaindu behar diena (interesak+ amortizazioa) bikoiztu egin da. Hona zifretatik harago ulertzeko konparazioa: urteotan zorra kitatzen Haitik erabiltzen du osasungintza publikoan gastatzen duenaren bi halako.

Jean-Claude Duvalierren kasua ez da bakarra, Nazio Batuen Erakundeak joan den astean gogorarazi duen moduan. Baina Duvaliertarren lorrazak ikertzen ari direnek nahiko lukete Ameriketako herrialderik txiroena den Haitiko diktadorearena konpontzea, beste guztien lapurretak argitu ditzazkeen langa irekitzeko.

Ez daukate lan erraza. Suitzan bankuko sekretua daukate oztopo. CCF-Dren ikerketetako batean –*La fortune des dictateurs*– Antoine Dulin-ek dio Suitzan atzerritarrek dauzkaten diruen erdiak legez kontra atereak direla. Eta Frantzia, Jean-Claude Duvalier diktadorea urrezko “sans-papier” babestua da. ■

<http://www.argia.com/nethurbil.php>
helbidean, gai honi buruzko informazio
gehiago eta Interneteko loturak.



Z E R B I T Z U A

**Beti
hurbilago.**

Zerbitzu integrala,
pertsonalizatua,
hurbila eta
etengabea.
Horixe
da gure
konpromisoa.

**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 4 - 20004 DONOSTIA
e-posta: zinkunegi@euskalnet.net
TEL: 943 426 624